

Asisko gutuna

2025eko abuztua

2. printzipioa. Eguneroko bizimodua: barnerantz, umiltasuna

202. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Beldurrak beti daude presente gure bizitzan. Ez dago giza bizitzarik beldurrik gabe. Agian sekretua horiek erabiltzen jakitearen artelanean dago.

Gogoetarako gaia

Beldurraren aurkako borroka

Zenbat beldurrek bisitatzen gaituen bizitzan zehar. Haurtzaroari buruzko beldurrak daude, beste batzuk gaztaroari dagozkionak dira, baita helduaroan ere; eta, nola ez, zahartzaroari dagozkionak. Inor ez dago bere beldurretatik libre; itxuraz seguruenak eta buruaskienak diren pertsonak ere badituzte beren beldurrak, eta ez txikiak.

Beldurra abisu bat bezalakoa da, bizitzan asaldatzen gaituzten arriskuei buruzkoa. Beldurrik gabe, ausartegiak izango ginateke, eta bizitza lehen aldaketarekin hautsiko litzateke. Ezin dugu bizitza inkontzienteki hartu, zuhurtasunez eta zuhurtziaz baizik. Arazoa da beldur horiek ez diotela errealitateari erantzuten, edo beldurrek blokeatu egiten gaituztela eta ez digutela bizitzen uzten. Horrela, gure segurtasun-eremuetan giltzapetzeko eta kikilduta, lotuta bizitzeko arriskua dugu.

Beldurrei aurre egin behar zaie bizitzan zabaldu nahi badugu. Egia esan, dena ez da norberak pentsatu bezala aterako, agian ezusteko bat

baino gehiago eramango du. Porrotaren eta sufrimenduaren esperientzia ere izango du. Baina bizitzak aurrera jarraitzen du, eta une jakin batzuetan erabaki behar izaten da aurrera egin ala beldurrak ainguratuta geratu. Beldurrak bizitzan eman beharreko pausoak errealismoz begiratzeraz eta haztatzeraz garamatza, baina hori menderatzen dakigunean bakarrik egin ahal izango dugu aurrera, eta ez utzi hark menderatzen.

Umiltasun dosi handi bat behar da, aurrean ditugun baldintzapenez eta arriskuez jabetuta, aurrera egiteko; esperientziaz jakinda emaitza ia inoiz ez dela norberak imajinatua bezalakoa, hala ere urrats garrantzitsua izango da bizitzan.

Konfiantzaren oinarria hauxe da: sekretua ez dagoela bizitzan asmatzean, aurrera egitean baizik. Porrota bera ere aurrerapausoa izango da. Eta Jainkoarenganako konfiantzara irekiak bagaude, beldurrak ez du gugan erabateko boterarik izango.

Ebanjelio pasartea: Mk 4,35-41

Egun berean, ilunabarrez, Jesusek bere ikasleei esan zien: «Goazen aintziraz beste aldera». Jendetaldia utzirik, zegoen txalupan bertan eraman zuten Jesus, beste zenbait ontzi ere harekin batera bazen arren. Hortan, haize-bolada zakarra atera zuen, eta uhinek txalupa jotzen zuten, ia urez betetzeraino. Jesus, berriz, txopan lo, buruko baten gainean. Esnarazi eta esan zioten: –Maisu, ez al dizu axola gu galtzeak? Hark, esnaturik, haserre egin zion haizeari, eta aintzirari esan: –Hago isilik! Geldi! Gelditu zen haizea eta barealdi handia egin zen. Jesusek esan zien: –Zergatik beldur hori? Nolatan duzue oraindik hain sinesmen gutxi? Beldur-ikaraz gelditu ziren, elkarri esanez: «Nor ote dugu hau, esana egiten baitiote haizeak eta aintzirak ere?»

Frantziskotar espiritualtasuna

Jainkoaren zerbitzaria esandako lekuan bizi zen bitartean, aita, detektibe arretatsu bezala, bazter guztiak miatzen ari zen, semeari zer gertatu ote zitzaion jakin nahirik. Non eta nola bizi zen jakin zuenean, gertaearen ustekabeko itzuliaz kezkatua eta bihotz barruraino samindua, lagunei zein auzokoei dei eginik, presaka eta korrika joan zen Jainkoaren zerbitzaria bizi zen lekura. Hau Kristoren atleta hasi berria zen oraindik eta, bila zetozkionen mehatxuen berri entzun eta hurbil zirela sumatzean, haien haserreari baretzeko astia eman nahirik, horretarako prestatua zuen zulo batean ezkutatu zen. Zulo hau etxearen azpian zegoen, eta batek baino ez zekien haren berri. Bertan egon zen gordeta hilabete osoan atera gabe, ia bere giza premietarako ere irtetera ausartzen ez zela. Inoiz ekartzen zioten jatekoa ere zuloan ezkutaturik jaten zuen, eta bestelako zerbitzuak ere isilpean egiten zizkieten. Etengabe egiten zuen otoitz, malko ugari isuriz, Jaunak pertsegitaileen eskutik libra zezala eskatuz, eta bere asmo santuak betetzen onberatasunez lagun ziezaion. Barauz eta negarrez eskatzen zuen Salbatzailearen errukia eta, ez baitzen bere indarrez fidatzen, Jaunaren eskuetan jartzen zuen bere burua. Eta zuloan sartuta ilunpean egonik ere, ordura arte dastatu gabeko zorion ezin esan ahalakoz betea sentitzen zen. Barne-su horrek bultzatuta, zuloa utzi eta zabal-zabalik eskaini zien bere burua pertsegitaileen irainei.

Jaiki zen berehala azkar, lehiatsu eta alai, eta jainkoagatik borrokatzeko fedearen ezkutuaz eta konfiantza handiz armaturik, hiriko bidea hartu zuen eta, jainkozko garretan suturik., bere burua nagikeriaz eta koldarkeriaz salatzen hasi zen. (Cf. 1Zel 10-11)

Otoitza

Ez asaldatu,
ez ikaratu,
dena igarotzen,
Jainkoa ez da aldatzen;
pazientziak
dena du lortzen.
Jainkoa duenak
ez du ezer falta,
Bera aski baita.
Goratu pentsamendua,
altza zerura,
ezerk ez zaitzala larritu,
ez asaldatu.

Jesukristori jarraitu
bular sendoz,
eta, datorrena datorrela,
ez ikaratu.
Ikusten duzu munduaren loria?
Loria hutsala da;
ez du ezer egonkorrik,
dena igarotzen da.
Jo zerukora,
beti irautean duena;
leiala eta promesetan aberatsa,
Jainkoa ez da aldatzen.

Beti bera,
botere ahalguztidunarekin;
agindu, eutsi,
eta indar ematen du.
Bere promesak irmoak dira,
zer gehiago nahi duzu?
Dena igarotzen da.
Jainkoa ez da aldatzen.
Pazientziak
dena du lortzen.
Jainkoa duenak
ez du ezer falta,
Bera aski baita.

Gutuneko azken hitzak

Beldurra naturala da zuhurrarengan, eta hori garaitzen jakitea ausarta izatea da. Alonso de Ercilla y Zúñiga (1533-1594) Espainiar idazlea.

2025ko abuztuko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1. Mt 13,54-58
2. Mt 14,1-12
3. Lk 12,13-21
4. Mt 14,13-21
5. Mt 14,22-36
6. Lk 9,28b-36
7. Mt 16,13-23

8. Mt 16,24-28
9. Mt 25,1-13
10. Lk 12,32-48
11. Mt 17,22-27
12. Mt 18,1-5.10.12-14
13. Mt 18,15-20
14. Mt 18,21-19,1

15. Lk 1,39-56
16. Mt 19,13-15
17. Lk 12,49-53
18. Mt 19,16-22
19. Mt 19,23-30
20. Mt 20,1-16
21. Mt 22,1-14

22. Mt 22,34-40
23. Mt 23,1-12
24. Lk 13,22-30
25. Mt 23,13-22
26. Mt 23,23-26
27. Mt 23,27-32
28. Mt 24,42-51

29. Mk 6,17-29
30. Mt 25,14-30
31. Lk 14,1.7-14

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Abuztuko otoitza hilaren
28an izango da.